

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Atal honetan negozio eredu batek funtziona dezan beharrezkoak diren hornitzaile eta bazkide sarea deskribatzen dugu.

Gure produktua egiteko beharrezko funtsezko elkarteak kimika enpresa bat da, non produktuaren kimikoak egiten dira, plastikozko poteen enpresa, gure webgunea eta gure produktua saltzen dugun denda guztiak dira.

Edozein produktu ekoiztean eta saltzean kanpoko enpresa askoren laguntza behar da produktu hori egin ahal izateko ; produkzioarako, salmentarako...

Produktu waterproof-a sortzeko enpresa kimiko baten laguntza behar izango dugu, langile kualifikatuekin eta intelektualekin. Zati hau garestienetakoa izango da, ilearentzako produktu bat sortzeko haren kalteak eta onurak ikusi behar direlako eta kalterik eragiten ez duen produktu sortu behar dugulako eta guk eskaintzen ditugun beharrak asetzen ditugula zehaztuz, haren konpozizio kimiko guztiak ikusiz... Kostu hau 5000 euro baino garestiagokoa izango da, waterproof izan behar delako eta prozesu luzea izango delako. Enpresa [Barcelonesa](#) izenekoa. Enpresa honek zenbait lekuetan aurkitu dezakegu, enpresa honekin kontaktatu dugu kalitatea ziurtatzen digulako, haren osagai guztiak naturalak izanda.



 **Barcelonesa**




Gure produktua gehienbat supermerkatu handietan salduko baita, Carrefour, Druni, Sephora, Mercadona, Alcampo eta El Corte Ingles horregatik haiekin kontaktatu beharko genuke han saltzeko asmoarekin. Horrez gain gure produktua saltzeko webgune zehatz bat sortuko dugu eta gure inguruko pertsona kualifikatuekin kontaktatuko genuke.

SEPHORA

DRUNI



MERCADONA



Carrefour

El Corte Inglés

Azkenik plastikozko poteak egiteko, beste enpresa batekin kontaktatuko genuke, enpresa <https://www.envaselia.com/envases-shampoo-idsf1002.htm> izango zen, ENVASELIA izanekoa, Polígono Industrial Las Arenas C/ Arroyo del Culebro 12 – Nave 8 28320 Pinto (Madrid) kokatuta dagoelako, kokapena erraztasunak ematen digulako eta haren ontziak plastiko erreziklatuarekin sortuak daudelako.

